

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Sarien 2025eko deialdia irudi berrituarekin zabalik da

- *Saria 1995ean sortu zenetik 30 edizio gainditu dira eta bi erakundeek zientzia, ikerketa eta sorkuntzarekin duten konpromisoa berretsi nahi izan dute sariaren irudi berriarekin*
- *Martxoaren 31 arte hautagaitzak aurkezteko epea zabalik dago Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien arloetako bi kategoriatan: CV bikaina eta Gazte Saria*

Donostia, 2025eko otsailak 13. Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak sarien deialdi berri bat martxan jarri dute, hain zuzen 31. edizioa izango dena. 1995az geroztik, bikaintasuna saritzen da Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien arloetan, eta 2019az geroztik, baita gazteek aurkeztutako egonaldi, sorkuntza edo ikerketa proiektuak ere.

Egun, euskal esparruan ospetsuenetakoa den sariak bere irudia berritu du, Eusko Ikaskuntza eta LABORAL Kutxaren arteko zientziaren, ikerketaren eta sorkuntzaren aldeko konpromiso partekatua sinbolo izango den motibo organiko batekin, gure gizartearen etorkizunerako eta garapenerako oinarri gisa.

Bi sari: CV bikaina eta Gazte Saria

Aurten ere **Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien arloetan nabarmendutako pertsona** bat sarituko da. Hautagaitzak norberaren izenean edo unibertsitate, zientzia eta kultura erakundeek aurkez ditzakete. Ebaluazio-epaimahaia Eusko Ikaskuntzako lehendakariak, LABORAL Kutxako lehendakariak, Euskal Herriko zazpi unibertsitateetako ordezkariak eta Musikeneko zuzendaritzak osatzen dute. 20.000 euroko saria ematen da.

Bestalde, sei edizioen ostean jada egonkortuta dagoen Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa **Gazte Sariak** 35 urtetik beherako gazteek aurkeztutako egonaldi, sorkuntza edo ikerketa proiektu onena aukeratuko du, Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien arloetan baita ere. Proposamenen egokitasuna, izaera berritzailea, gaurkotasuna eta etorkizuneko proiektzioa, euskararen erabilera eta genero ikuspegia baloratuko dira. Saria 6.000 eurokoa da.

Bi kasuetan, hautagaitzak onartzeko epea martxoaren 31n amaituko da. Oinarriak Eusko Ikaskuntzaren web orrian (www.eusko-ikaskuntza.eus) ikusgai daude.

NOTA INFORMATIVA

Abierta la convocatoria a los premios Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa 2025 con una imagen renovada

- *El galardón ha superado las 30 ediciones desde su creación en 1995, y ambas entidades han querido reafirmar su compromiso con la ciencia, la investigación y la creación con una nueva imagen*
- *Hasta el 31 de marzo está abierto el plazo para presentar candidaturas en las dos categorías del ámbito de las Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales: CV excelente y Premio Joven*

Donostia-San Sebastián, 13 de febrero de 2025. Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa han puesto en marcha una nueva convocatoria de premios, la que será su 31ª edición. Desde 1995 se premia la excelencia en las áreas de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, y desde 2019 también los proyectos de residencia, creación o investigación presentados por jóvenes.

El galardón, hoy uno de los más prestigiosos del ámbito vasco, celebra este año su trigésimo aniversario renovando su imagen que simboliza el compromiso compartido de Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa en favor de la ciencia, la investigación y la creación como fundamentos para el futuro de nuestra sociedad y su progreso en el sentido más genuino.

Dos premios: CV excelente y Gazte Saria

Un año más se premiará a una **personalidad relevante en las áreas de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales**. Las candidaturas pueden presentarse bien a título personal o bien por instituciones universitarias, científicas y culturales. El jurado evaluador estará compuesto por la presidenta Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, el presidente de LABORAL Kutxa, representantes de las Universidades del ámbito vasco y de la dirección de Musikene.

Por otro lado, el Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa **Gazte Saria**, ya consolidado tras seis ediciones, elegirá el mejor proyecto de estancia, creativo o de investigación en las mismas áreas que el precedente presentado por jóvenes, en grupo o individualmente, menores de 35 años. Se valorará la adecuación de las propuestas, su carácter innovador, su actualidad y proyección de futuro, la utilización del euskera así como la perspectiva de género. La cuantía del premio es de 6.000 euros.

En ambos casos, el plazo de admisión de candidaturas finaliza el 31 de marzo. Las bases de sendas convocatorias están visibles en la página web de Eusko Ikaskuntza (www.eusko-ikaskuntza.eus).